

## SEPAri buruzko ohiko galderak

### SEPAri buruzko galderak

- Zer onura dakar SEPAk?
  - Aplikazio zonan kokatuta dauden kontuen artean eurotan egindako ordainketak gaur egungo nazio mailako ordainketak bezain erraz egitea ahalbidetzen du SEPAk; horrek merkatu berrietan sartzea errazten du.  
Kontu bakar batekin, txartel bakar batekin eta ezaugarri berdintsuak dituzten ordainketa-tresnekin bezeroek ordainketak egin ditzakete SEPA zonako edozein herrialdetan.
- Nola identifikatzen da kontu bat SEPAri?
  - SEPAri ordainketa-operazioak egiteko kontu-identifikagailu bakarra IBAN kodea da (Banka kontuaren nazioarteko zenbakia). Bestalde, BIC kodeak (Nazioarteko banka kodea) kontua dagoen erakundea identifikatzen du.
- Non eskuratu dezaket kontu baten IBAN zenbakia?
  - Datu hori kontu-laburpenean eta bestelako jakinarazpenetan lor daiteke.  
Horrez gain, Online Bankako aplikazioetan ere eskuragarri dago.
- Espainiako IBANak 34 karaktere alfanumeriko ditu; mugaz haraindiko IBANak, aldiz, 35 karaktere izan ditzake:
- Zer da BICa?
  - Nazioarteko banka kodeak (edo BICak) kontuari lotutako bankua identifikatzen du.  
Kutxabanken BICa hau da: BASKES2BXXX.
- Transferentzia eta zuzeneko zordunketak egiteko SEPA operazioak egin edo jasotzeko zerbait aldatu behar dut nire kontuan?
  - Ez, nazio barruko transferentziak edo/eta zordunketak jasotzea ahalbidetzen duen kontua baldin badaukazu. Izan ere, kontu horiek guztiak dagoeneko SEPA tresna berriak erabiltzeko prest daude.